

Erantzunak: 2.-Angela Vilariño eta
 automobilismoa, Oier Zearra eta pilota, Almudena
 Cid eta gimnastika, J.L. Korta eta arrauna. 3.-
 Bizarzurten txapela. 4.-Arkonada, Cedrun, Iribar,
 Olabe.

Denbora.



2 Sagu Jakintsua

Lagunok, aste honetan kirola egiten jarraituko dugu. Ea lotzen duzun kirolari bakoitza bere kirolarekin!


Poltsa

Poltsa berezi bat eduki nahi al duzu? Zure lagunak harrituak geratuko dira, eskolara edo txango batera poltsa honekin agertzen zarenean. Jarraitu argibideei, pausoz pauso.

Beharrezko materiala


- Zula gailua.
- Guraizeak.
- 5 litroko plastikozko bi ur ontzi.
- Plastikozko ontziek alboko heldulekua izan behar dute.
- Plastikozko soka berde bat.
- Gortinako zinta lau bat; ahal dela, horia izan dadila.
- Sei koadernatzaile.

Nola egin




1 Ur ontzi bat hartu, eta oinarritik 16 bat cm-tara moztu (ur ontziaren oinarri hori poltsaren gorputza egiteko erabiliko dugu). Beste ur ontzia oinarritik 5 cm-tara moztu (zati hau poltsaren estalki gisa erabiliko dugu).


3 Zuloetatik plastikozko soka berdea pasatu, ertzetatik ondo josita geratzen dela.



2 Poltsaren gorputza egiteko ur ontzia hartu, eta ertzetik zentimetro batera zuloak egin zulo gailuarekin. Zulo batetik bestera 2 cm-ko tartea utzi.



4 Gortinako zinta hartu, eta 45 cm-ko bi zati moztu; 10 cm-ko hirugarren zati bat ebaki. Guraizeekin, zinta laburrenaren alde batean ebaki pare bat egin; beste alde, berriz, biribildu.



-pasa



3 Puntuak lotu

Nork utzi ote dizkio Manexi hainbeste opari? Puntuak ordena egokian lotuz gero, **asmatuko** duzu nork egin duen oparia.


4 Itzalak

Futbolean jokatzea gustuko duzu, baina ikustea? Hizki hauek ordenatuz gero, **Realeko eta Athleticceko** lau atezainen izenak osatuko dituzu.


ARKNAODA





CENDRU




IRBIRA




OBK0*04BALE



5 Orain, zuloak egiteko ordua da. Poltsaren estalkiaren atzeko aldean bi ebaki egin (zulo batetik bestera 10 cm-ko tartea utzi); kontrako aldean, aldiz, erdi-erdian ebaki bat egin. Poltsaren gorputzean gauza bera egin: bi zulo alde batean (atzeko aldean), eta kontrako aldean, zulo bat erdian. Zuloak egiteko, ez ahaztu heldu bati laguntzeko eskatzea.



6 Bi zinta luzeen lau puntak egindako ebakietatik pasatu behar ditugu. Lau koadernatzaileekin, poltsaren gorputza eta estalkia lotuko ditugu.



7 Poltsaren aurreko aldean egin dugun zulotik, beste koadernatzaile bat sartu. Horixe izango da gure poltsa itekoa. Poltsaren estalkia eta gorputza zinta laburrarekin lotzeko, beste koadernatzaile bat ipini poltsaren estalkiaren aurreko aldean egin dugun zuloan. Erraz ireki eta itxi ahal izango duzu zure poltsa. Ederra, ezta?

